

Hasi dira 4G mugikorra 800 megahertzeko (Mhz) bandan zabaltzen: LTD eta 4G elkarrekin

Dibidendu Digitalaren prozesua **(800 MHz-eko bandaren liberazioa)** amaitu delarik, telefonia mugikorreko banda horren operadore esleipendunak 4Ga hasiko por hasi dira zabaltzen telebista-zerbitzuak lehen erabiltzen zituen frekuentzietan.

4G telefonia mugikorraren emisioak LTDren (Lurreko Telebista Digitala) bandaren ondokoan egingo dira; hortaz, baliteke telebista-seinalea hartzeko arazoak izatea telefonia mugikorreko estazioetatik oso gertu dauden eraikin edo etxebizitza batzuetan.



4Gak 800 MHz-eko bandan dituen abantailak

Teknologia horrek Internet mugikorraren abiadura hobetuko du (bideoak, esaterako, askoz ere azkarrago igo eta deskargatuko dira) eta eraikinek estaldura hobea izango dute barruan. Horrez gain, 4Gak 800 MHz-eko bandan estaldura geografiko handiagoa duenez, zerbitzua hobetuko du herri txikietan eta landaguneetan.



www.llega800.es

Harremanetarako:
900 833 999




4G 800_{MHZ-EKO} BANDAN ZABALTZEA



Herritarrek babestea

Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren Ministerioak hainbat betebeharrak ezarri dizkie 800 Mhz-eko bandaren operadore mugikor lizentziadunei (Orange, Telefónica eta Vodafone), 4G zerbitzuak martxan jartzen ari diren bitartean herritarrek arazorik izan ez dezaten telebista ikusteko.

Operadoreek egin beharreko jarduera teknikorik **ez dute ordaindu beharko herritarrek.**



Zer nolako jarduerak dira

Operadoreek, 4G zerbitzuak frekuentzia-banda honetan zabaldu ahal, arazoak izan ditzaketen eraikinetan jardun beharko dute, telebista ikusteko arazorik ez dagoela bermatzeko eta herritarrek telebista-kanalak orain arteko kalitatezko baldintzetan ikus ditzaten.

Kasu gehienetan, iragazki bat jarriko da telebista-seinalea jasotzeko instalazioan (antena).


Nola jakin dezaket nire etxebizitzak arazoak izan ditzakeen

1 Arazorik handienak izan ditzaketen tokietan bizi diren herritarrek **gutun bat jasoko dute**, egun horretatik aurrera beren eraikineko antena egokitzeko eska dezaketela jakinaraziz, egon daitezkeen arazoak saiheste aldera.

Horretarako, hurrengoa egin beharko duzu:

- Eraikin kolektibo batean bizi bazara, eska iezaiozu zure Jabekideen Komunitateko Presidenteari edo zure Finka Administrazioarekin Bezeroen Arretarako Zentroarekin harremanetan jar dadila, liburuxka honen amaieran zehaztutako aukeretak baten bidez.

Etxebizitza indibidual batean bizi bazara, jar zaitez zu zeu Bezeroen Arretarako Zentroarekin harremanetan.



Prebentziozko jarduera horiek 4G emisioen zerbitzua zure gunean martxan jarri baino lehen egingo dira.

2 Aurretiko jarduerak eginda ere, zenbait kasutan, baliteke telebista ikusteko arazoak izatea behin emisioak hasten direnean. Halakoetan, herritarrek 6 hilabeteko epea izango dute Bezeroen Arretarako Zentroari beharrezko jarduera teknikoak egin ditzatela eskatzeko, telebista-zerbitzuan inolako arazorik ez izateko. Jarduera horiek **ere doakoak izango dira herritarrentzako.**



Prozesu horren inguruko zalantzarik baduzu edo telebista ikusteko arazoak badituzu, jar zaitez harremanetan Bezeroen Arretarako Zentroarekin 900 833 999 telefono-zenbakira deituta, edo kontsulta ezazu www.llega800.es webgunea.



CAU 900 833 999
www.llega800.es

Erreklamazioen kudeaketa
Zure eskubideak bermatzen ditugu

Erabiltzaileen eskubideak bermatze aldera, Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren Ministerioak, Agenda Digitalerako eta Informazio Gizarterako Estatu Idazkaritzaren bitartez, operadoreek gauzatutako jardueren eta konponbideen aurka herritarrek aurkeztutako erreklamazioei erantzun die, operadoreei eskatzen zaizkien aurretiko jarduerari eta neurriei dagokienez.

Erreklamazioa egin ahal izateko, ezinbestekoa da lehenengo **900 833 999** zenbakira deitzea edo www.llega800.es webgunean datorren Erreklamazioen inprimakia betetzea. Hori egin ondoren, konponbidea edo erantzuna nahikoa ez bada edo hilabeteko epean besterik gabe erantzunik jaso ez bada, Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren Ministerioak aurkeztu beharko da erreklamazioa 3 hilabete igaro baino lehen. Erreklamazioekin lotutako informazioa jasotzeko (aurkeztu beharreko dokumentuak, aurkezteko bideak...), jar zaitez harremanetan Telekomunikazioen Erabiltzaileentzako Arreta Bulegoarekin, 901.33.66.99 edo 968 010 362 telefonoetara deituta, edo www.usuarioteleco.es webgunean sartuta